


Mendi magalean

b i d a i d e , g o g a i d e



Erlo: Izarraizko harrizko dorrea


Izarraizko mendiguneak Urolaldean begiz menderatu eta gozatzeko aukera ederra ematen du. Udaberria ate joka dugun honetan, gainaldeko zelaiak egunpasa ederra egiteko ez dira txarrak.

IKUSGARRIA da ezberrik gabe ingurune zabal batetik nabarmentzen den Izarraiz mendikateko tontorrik garaiena. Bertara abiapuntu ezberdinetatik igo gaitzke. Nagusienak eta ohizkoenak Azpeitia eta Azkoitia badira ere, Zestoa nahiz Azkarate mendatetik barrena ere igotzeko parada daukagu. Gaurko txangoari Azkoititik ekin diogu.

Herriko elizaren atzeal-detik doan bidea hartu eta ikastola aldamenetik igaroz zementuzko malda bati ekingo diogu. Bide hau, Gaintza eta Agina baserriak atzean utzi ondoren, Haritza baserri-raino doa. Honaino azkoitiar gehienak oinez igo-tzen badira ere, autoz joan gaitzke, autoa bertan dagoen zabalgunen batean utziz. Putzu txiki baten albotik pasaz esku-bira joko dugu bidezidor batetik barna.

(0') Haritza baserria • Hasierako zatia nahikoa maldatsua da, eta batik bat kararriak nahiz pago bakan batzuk izango dira gure lehen izardien testigu. Gorantz goazen heinean Azkoitia gero eta txikiago ikusten joango gara, gero eta ikusmira zabalagoatik.

(20') Pinudia • Pinudi batean barneratzen gara, bere geriza gure lehen berotasunak freskatzeko ederki etorriko zaigularik. Bideak pagadi bat edo beste zeharkatuko ditu, azken aldapa gogor bat gainditu eta Izarraizko lepora iristeko.



Erloko tontorra eta Goltzibarko erreka zuloa Aittolako gainetik.

ANTXON ITURRIZA

(40') Lepoa • Laster *Ixkitturri* deritzen iturria topatuko dugu. Iturri honetan, gure bideak Azkaratetik datorrenarekin egiten du bat, aurrez aurre Kakute tontorra (924 m.) dakusagularik. Tontorra egin nahi izanez gero, ordu laurden bat beharko dugu sasiz ingururiko bidezidor batetik joanez. Guk eskubirantz joko dugu, segituan Xoxoteko aterpera iristeko.

(45') Xoxote • San Adriango aterpearekin batera Gipuzkoako men-

di Federakundearena da, gaur egun berritua eta oso ondo prestatua. Aterpean gure bideak Azpeitiatik datorren bidearekin bat egiten du, eta hemendik Erlora 15 minututan iritsiko gara.

(60') Erlo tontorra (1.030 m.) • Azkoitia, Azpeitia nahiz Zestoa ditugu magalean.

Beharakoan Xoxoteko aterpean salda bero bat hartu eta handik 5 minutu dagoen Loiolako San Inazioaren irudi itzela ikustea gomendatzen dizuet.

Itzulera bide beretik egingo dugu, baina badi-ra bide alternatiboak: txangoan zehar aipatu bezala, Azkoitia eta Elgoibar tartean dagoen Azkarate mendatetik igo gaitzke. Madariaga (Madari- xia) auzotik barna Attolan (700 m inguruko altuera) autoa utzi, eta zeharbide lasaia da.

Azpeitiatik nahiz Zesto- atik ere igo gaitzke. Agian azken hau da txan- go guztietan gogorrena.

Mikel Egaña

zangoak txango

ibilaldiak ▶ martxoak 13-14

Donostia (C.V.Camping) • Zengoitia, Oitz (1.020 m.), S. Cristobal, Ziorza, Bolibar. Tel: 42 84 79.
Arrasate (Besaide) • Estain bailara (Biarno). Gran Barbat (2.813 m.) igoko da. Tel: 7984 74.
Galdakao (Ganguren) • Andezarrate, Zarateaitz (486 m.), Andatza (562 m.), Usurbil. Tel: 456 23 26.
Azpeitia (Lagun-Onak) • Zarauzko ibilaldi neurtua.
Sakana (Mendizaleak) • Belagua, Arette.
Basauri (Baskonia) • Andezarrate, Zarateaitz (486 m.), Andatza (562 m.), Usurbil. Tel: 449 57 28.
Meatzaldea (Meatzal-Fabrik) • Karrantza, Ranero.
Sestao (Alpino) • Ungino (1.094 m.), Madaria. Gazte- txoen irteera. Tel: 472 13 79.
Sodupe (Gallarraga) • Neilako mendizerra.
Iruñea (Txantrea M.T.) • Anboto.
Astrabudua (Atxazpe) • Lizarrusti, Etxegarate.
Andoain (Euskalduna) • Zazpiak bat. Hirugarren eta- pa: Zestoa, Lastur, Mendaro. Tel: 59 22 32.
Errenteria (Urdaburu) • Rio Lobos zintzurteko zehar- kaldia. Tel: 52 78 79.
Durango (Tabira) • Candanchu. Tel: 620 31 53.
Santutxu (Santutxu M.T.) • Larrauri, Jata (500 m.).

▶ martxoak 19-20-21

Arrasate (Besaide) • Alto Carrionera (Palencia) zubi osorako. Tel: 79 84 74.
Oiartzun (Girizia) • Irteera Iparraldera. Iholdi, Bida- rrai, Azkaine eta Oiartzun lotuko dira mendiz men- di. Zubi osorako irteera. Tel: 49 08 35.
Hernani (Mendiriz Mendi) • Sarrioren bailara, Bernera (2.450 m.), Pico de los Monjes, Bisaurin. Zubi oso- rako irteera. Informazioa: 33 27 45.
Hernani (Mendiriz Mendi) • Mendirik mendi ekimen- ren lekuko ematea igandean Irumugarrietan (1.427 m.). Tel: 33 27 45.
Uribe Kosta (AEK) • Karrantzako Baljerrira.
Beasain (Aitzgorri) • Murumendi.
Gasteiz (Peña Karria) • Lagran, Palomares, Cruz del Castillo (1.446 m.), Lagran. Goiz buelta.
Durango (Tabira) • Peña Ubiña. Zubi osorako. Tel: 620 31 53.
Maule (Bortükariak) • Iparlatze, Amikuze.
Santutxu (Santutxu M.T.) • Illuntzar, Nabarniz.
Bilbo (Juventus) • Burgos eta Soriana zubi osorako.
Sestao (Alpino) • Belagua, Anie, Lapakinza Linzola. Zubi osorako. Tel: 472 13 79.
Bilbo (Egungentia) • Pico Cuiña (1.987 m.). Zubi oso- rako irteera.
Deba (Burdin Gurutz) • Urto, Mandoegi, Arano.
Iruñea (Nafarroa K.E.) • Guardaetxe, Irumugarrieta, Lizarrusti. Mendirik Mendi ekimena.
Azpeitia (Lagun-Onak) • Larunbatean zuhaitz landa- keta Asketako bidean. Murua, Gorbea, Arraba, Ipe- gorta, Pagomakurre. Astebururako. Tel: 81 20 25.
Donostia (C.V.Camping) • Otelore gailurrean Mendirik Mendi ekimeneko makila jasoko du taldeak.

ikastaroak ▶ Martxoak 13-14

Hernani (Mendiriz-Mendi) • Mendiko eski ikastaroa Xanti Gorrotxategirekin. Argibideak: 33 27 45.

▶ Martxoak 22,23 eta 25

Donostia (C.V.Camping) • Mendian ongi elikatzeko eta hidratatzeko ikastaroa Ramon Garate EMFko medi- kuaren eskutik. Argibideak: 42 84 79.

emanaldiak ▶ Martxoaren 12tik aurrera

Ermua (BBK) • Inurrategi anaiek *Kordadako lagun galdia* proiektzioa eskainiko dute datorren asteaz- kenean, hilak 17, azkeneko hiru espedizioen ingu- ruan. Ermua zinemaren 20:00etan.
Zornotza (BBK) • Inurrategi anaiek *Kordadako lagun galdia* proiektzioa eskainiko dute datorren ostegu- nean, hilak 18, 20:00etan Zornotza Aretoan.
Donostia (C.V.Camping) • Datorren ostegunean, hilak 18, Andoni Areizagak Patagoniako Paineko Erdiko Dorrean zabalduko antzara eta Gaizka bideari bu- ruzko proiektzioa eskainiko du. Arratsaldeko 19:30etan izango da Okendo Kultur Elxean.